



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2025eko urriaren 13a

117. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—11-25/CCOI-00019. “Jardunbide Egokien aldeko eta Ustelkeriaren kontrako Bulegoaren urteko kontuak (2024)” fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

11-25/CCOI-00019. “Jardunbide Egokien aldeko eta Ustelkeriaren kontrako Bulegoaren urteko kontuak (2024)” fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 1ean eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak “Jardunbide Egokien aldeko eta Ustelkeriaren kontrako Bulegoaren urteko kontuak (2024)” fiskalizazio-txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko

Erregelamenduaren 230. artikuluan ezarritakoarekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko irailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

AURKIBIDEA*Orrialdea*

I. SARRERA	4
II. FISKALIZAZIOAREN HELBURUAK ETA NORAINOKOA	4
III. IRITZIA	5
III.1 Finantza-auditoretzako iritzia	5
III.2 Legedi-betetzeari buruzko iritzia	5
IV. IRITZIAREN OINARRIA	5
V. AUDITORETZAKO GAI GILTZARRIAK	5
VI. JARDUNBIDE EGOKIEN ALDEKO ETA USTELKERIAREN KONTRAKO BULEGOAREN ERANTZUKIZUNA	6
VII. NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA	6
VIII. AURREKO TXOSTENETAN EMANDAKO GOMENDIOEN JARRAIPENA	7
1. GEHIGARRIA. JARDUNBIDE EGOKIEN ALDEKO ETA USTELKERIAREN KONTRAKO BULEGOAREN URTEKO KONTUEN LABURPENA (2024)	8
1.1 2024ko aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria	8
1.2 2024ko ekitaldiko aurrekontu-emaitza	8
1.3 Diruzaintza-gerakina 2024ko abenduaren 31n	9
1.4 Balantzea, 2024ko abenduaren 31koa	9
1.5 2024ko ekonomia- eta ondare-emaitzaren kontua	10
1.6 Ondare garbian izandako aldaketan egoera-orria, 2024	10
1.7 2024ko diru-fluxuen egoera-orria	10
2. GEHIGARRIA. JARDUNBIDE EGOKIEN ALDEKO ETA USTELKERIAREN KONTRAKO BULEGOA	11
3. GEHIGARRIA. ARAU-ESPARRUA	12
4. GEHIGARRIA. FISKALIZAZIOKO BESTE OHAR ETA AURKIKUNTZA BATZUK	13
4.1 Egindako jarduna	13
4.2 Aurrekontu-likidazioa	13
4.3 Langileria-gastuak	14
4.4 Administrazio-kontratazioa	15
4.5 Transferentzia arruntengatiko eta kapital-transferentziengatiko diru-sarrerak	15

I. SARRERA

Nafarroako Kontuen Ganberak, berari buruzko abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari eta 2025erako fiskalizazio-programari jarraituz, Jardunbide Egokien aldeko eta Ustelkeriaren kontrako Bulegoaren (aurrerantzean, Bulegoa) 2024ko ekitaldiko urteko kontuak fiskalizatu ditu.

Azterketa lana 2025eko ekainean egin du auditoretzako teknikari batek eta auditore batek osatutako lantalde batek. Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen lankidetzaren ere izan dute.

Eskerrak ematen dizkiegu Bulegoko langileei, lan hau egitean emandako laguntzarengatik.

Txosten honetako datu guztiak eurotan eman dira, biribilduta, zentimorik ez agertzeko. Balio zehatz bakoitza biribilduta adierazten dute beti hemen emandako datuek eta ehunekoek, eta ez biribildutako datuen batura.

II. FISKALIZAZIOAREN HELBURUAK ETA NORAINOKOA

Finantzei eta legedi-betetzeari buruzko fiskalizazioa egin dugu, honako hauei buruzko iritzia emateko:

- Ea 2024ko ekitaldiko urteko kontuak irudi zehatza erakusten duten, alderdi aipagarri guztietan, Bulegoak 2024ko abenduaren 31n zituen ondareari eta finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaitutako ekitaldiko emaitza ekonomiko eta aurrekontukoei dagokienez ere, betiere jarraituz aplikatzekoa den arau-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko eta aurrekontuen inguruko printzipio eta irizpideei.

- Ea 2024ko ekitaldiko urteko kontuetan jasotako jarduerak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa bat datozen, alderdi adierazgarri guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzeak zaizkion arauekin.

Bulegoaren 2024ko urteko kontuak dira fiskalizazioaren norainokoa, eta honako kontabilitateko egoera-orri hauek hartzen dituzte barnean:

- Aurrekontu-likidazioaren egoera-orria.
- Egoera-balantzea.
- Emaitza ekonomiko eta ondarekoaren kontua.
- Ondare garbian izandako aldaketen egoera-orria.
- Diru-fluxuen egoera-orria.
- Oroitidazkia.

Fiskalizazioaren denbora-norainokoak 2024ko ekitaldia hartzen du, baina beste ekitaldi batzuei buruz ere egin dira egin beharreko egiaztapenak, hobeki lortzearen ezarritako helburuak.

III. IRITZIA

Nafarroako Kontuen Ganberak, 19/1984 Foru Legeak esleitzen dizkion eskumenak erabiliz, Bulegoaren urteko kontuak fiskalizatu ditu. Honako hauek osatzen dituzte kontu horiek: 2024ko abenduaren 31ko balantzeak, emaitza ekonomiko eta ondarezkoaren kontuak, ondare garbian izandako aldaketen egoera-orriak, eskudiru-fluxuen egoera-orriak, aurrekontuko likidazioaren egoera-orriak eta data horretan amaitutako ekitaldiari dagokion oroitidazkiak. Orobat, Bulegoaren legedi-betetzeari buruzko fiskalizazioa egin du 2024ko ekitaldiari dagokionez.

III.1 FINANTZA-AUDITORETZAKO IRITZIA

Gure iritiz, 2024ko ekitaldiko urteko kontuek irudi zehatza erakusten dute alderdi muntadun guztietan Bulegoak 2024ko abenduaren 31n zuen ondareari eta finantza-egoerari buruz. Halaber, haren emaitza ekonomiko eta aurrekontuak islatzen dituzte, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkionak; betiere, aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko arau-esparruari jarraituz, eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei.

III.2 LEGEDI-BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Gure iritiz, egindako lanaren norainokoa kontuan hartuta, Bulegoaren 2024ko ekitaldiko urteko kontuetan jasotako jarduerak, aurrekontu- nahiz finantza-eragiketak eta informazioa bat datoz funts publikoen kudeaketari aplikatzekoak zaizkion arauekin alderdi muntadun guztietan.

IV. IRITZIAREN OINARRIA

Kanpo-kontrolako erakunde publikoek erabakitako funtsezko fiskalizazio-printzipioen arabera egin dugu fiskalizazioa, eta, zehazki, finantza-fiskalizazioari buruzko ISSAI-ES 200 arauan eta legedi-betetzearen fiskalizazioari buruzko ISSAI-ES 400 arauan ezarritakoaren arabera; halaber, kanpo-kontrolako organoen fiskalizazio-gida praktikoak (GPF-OCEX) erabili ditugu. Aurrerago deskribatzen dira arau horien indarrez ditugun erantzukizunak, gure txosteneko "Kontuen Ganberaren erantzukizunak" atalean, urteko kontuei eta legedi-betetzeari buruzko fiskalizazioaz denaz bezainbategian.

Entitatearekiko independenteak gara, urteko kontuez eta legedi-betetzeaz egin dugun fiskalizazioari aplikatzekoak zaizkion etika-eskakizunekin eta independentzia-babesaren arlokoekin bat, fiskalizazio publikoko jardueraren gaineko araudiak exijitzen duen bezala.

Gure ustez, lortu dugun auditoretza-ebidentziak oinarri nahikoa eta egokia ematen dio finantzei eta legedi-betetzeari buruzko gure iritziri.

V. AUDITORETZAKO GAI GILTZARRIAK

Auditoretzako gai giltzarri dira gure iritzi profesionalaren arabera esanahi handiena izan dutenak 2024ko urteko kontuei buruz egin dugun fiskalizazioan. Auzi horiek urteko kontuen osotasunari buruzko gure auditoretzaren testuinguruan eta urteko kontuei buruzko gure iritzia taxutzean jorratu ditugu, eta ez dugu bereiz azaltzen horien gaineko iritzirik.

Ondorioztatu dugu ez dagoela gure fiskalizazioan jakinarazi beharreko gai giltzarriak.

VI. JARDUNBIDE EGOKIEN ALDEKO ETA USTELKERIAREN KONTRAKO BULEGOAREN ERANTZUKIZUNA

Bulegoaren zuzendaritzak du urteko kontuak egiteko ardura. Halako moduz egin behar ditu non leialki irudikatuko baitituzte Bulegoaren aurrekontu-likidazioa, ondarea, emaitzak eta finantza-egoera, aplikatzekoa den finantza-informazio publikoari buruzko arau-esparruarekin bat.

Halaber, bermatu beharko du aipatutako kontuetan islatutako jarduerak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela aplikatzekoa den araudiarekin.

VII. NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA

Gure helburuak dira honako hauek egiaztatzea arrazoizko ziurtasunez: urteko kontuen osotasunean ez dagoela iruzur edo errorearen ondoriozko akats materialik, eta kontu horietan islatutako jarduerak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela aplikatzekoa den araudiarekin; hori guztia, erregulartasunezko fiskalizazio-txosten bat emate aldera, zeinak gure iritzia jasoko baitu.

Arrazoizko ziurtasun hori ziurtasun handia da, baina ez du bermatzen kanpo-kontrolako organoei buruzko araudiari jarraituz egindako fiskalizazio batek beti atzemanen duenik errore material bat edo urraketa muntadun bat, halakorik dagoenean. Akatsak iruzurraren edo errorearen ondorio izaten ahal dira, edo legedia ez betetzearen ondorio, eta akats materialtzat jotzen dira Kontuen Ganbera honen irizpideak aplikatuta, baldin eta zentzuz aurreikusten ahal bada eragina izanen dutela txostenen erabiltzaile diren pertsonen erabaki ekonomikoetan.

Kanpo-kontrolako organoei buruzko araudiari jarraituz egindako fiskalizazio baten parte gisa, gure iritzi profesionala aplikatzen dugu, eta eszeptizismo profesionaleko jarrerari eusten diogu auditoretza osoan. Halaber:

- Identifikatu eta baloratu egiten ditugu iruzur edo oker baten ondoriozko akats materiala egoteko eta legeak ez betetzeko dauden arriskuak, arrisku horiei erantzuteko auditoretza-prozedurak taxutzen eta aplikatzen ditugu, eta behar adinako eta behar bezalako auditoretza-ebidentzia lortzen dugu gure iritzia oinarri emateko. Iruzurraren ondoriozko akats material edo urraketa bat ez atzemateko arriskua handiagoa da errorearen ondoriozko akats material bat ez atzematekoa baino; izan ere, iruzurrak bere barne izaten ahal ditu kolusioa, faltsutzea, nahitako omisioak, propio egitako adierazpen okerrak edo barne-kontrolarengandiko ihesa.
- Fiskalizaziorako esanguratsua den ezagutza, barne-kontrolari buruzkoa, lortzen dugu, inguruabarren arabera egokiak diren auditoretza-prozedurak diseinatze aldera; eta ez, ordea, entitatearen barne-kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzi bat emate aldera.
- Ebaluatzen dugu ea aplikatutako kontabilitate-politikak egokiak ote diren, ea kontabilitate-estimazioak zentzuzkoak diren, eta ea egokia den kudeaketa-organismoak emandako informazioa.
- Urteko kontuen aurkezpen orokorra, egitura eta edukia ebaluatzen ditugu, emandako informazioa barne, eta ea urteko kontuek zehatz irudikatzen dituzten transakzioak eta azpian dauden egitateak.

Erakundearen gobernu-organismoarekin harremanetan jartzen gara, besteak beste auditoria-proba planifikatuen norainokoaz eta horiek egiteko uneaz aritzeko, bai eta fiskalizazioaren aurkikuntza esanguratsuez eta fiskalizazioan zehar barne-kontrolari buruz identifikatzen dugun edozein akats adierazgarri ere.

VIII. AURREKO TXOSTENETAN EMANDAKO GOMENDIOEN JARRAIPENA.

Fiskalizatutako ekitaldian, aurreko txostenean jasotako *gomendio* garrantzitsu hauek bete dira:

- *Bulegoaren zerbitzupeko langileen plantilla organikoa urtero onestea.*

Aurreko txostenean jasotako *gomendio* garrantzitsu hauek lehengoan diraute:

- *Bulegoak egindako jardueraren urteko oroitidazkia onestea.*
- *Neurri egokiak hartzea Bulegoaren plantilla organikoan dauden plaza hutsak betetze aldera, aplikatzekoa den araudiarekin bat.*
- *Kontabilitate- eta aurrekontu-kudeaketarako programa informatiko bat ezartzeko aukera aztertzea.*
- *Nafarroako Gobernuari justifikatzea egindako inbertsioen beharra, dagokion finantzaketa eskatu baino lehen.*

Javier Marticorena Chapa auditorea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta jaulkitzen da txosten hau, indarreko araudiak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2025eko uztailaren 1ean

Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakaria: Ignacio Cabeza del Salvador

1. GEHIGARRIA. JARDUNBIDE EGOKIEN ALDEKO ETA USTELKERIAREN KONTRAKO BULEGOREN URTEKO KONTUEN LABURPENA (2024)**1.1 2024KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN EGOERA-ORRIA****Gastu-aurrekontuaren betetzea**

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Aitortutako betebeharrak	Ordainketak	Betetzea (%)
1. Langileria-gastuak	681.248	681.248	162.691	162.691	% 24
2. Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak	108.983	108.983	28.730	26.342	% 26
6. Inbertsio errealak	84.791	84.791	22.219	22.179	% 26
Gastuak, guztira	875.022	875.022	213.641	211.212	% 24

Diru-sarreraren aurrekontuaren betetzea

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Aitortutako eskubideak	Kobrantzak	Betetakoa (%)
4. Transferentzia arruntak	784.841	784.841	251.444	251.444	% 32
7. Kapital-transferentziak	90.181	90.181	22.001	19.259	% 24
Diru-sarrerak, guztira	875.022	875.022	273.446	270.704	% 31

1.2 2024KO EKITALDIKO AURREKONTU-EMAITZA

Kontzeptua	2023				2024			
	Aitortutako eskubide garbiak	Aitortutako betebeharrak garbiak	Doikuntzak	Aurrekontu-emaizak	Aitortutako eskubide garbiak	Aitortutako betebeharrak garbiak	Doikuntzak	Aurrekontu-emaizak
a. Eragiketa arruntak	191.648	155.585		36.063	251.444	191.421		60.023
b. Kapital-eragiketak	21.212	53.116		-31.904	22.001	22.219		-218
c. Merkataritza-eragiketak								
1. Eragiketa ez-finantzarioak guztira (a+b+c)	212.860	208.701		4.158	273.446	213.641		59.805
d. Finantza-aktiboak								
e. Finantza-pasiboak								
2. Finantza-eragiketak, guztira (d+e)								
I. Ekitaldiko aurrekontu-emaizak (I=1+2)	212.860	208.701		4.158	273.446	213.641		59.805
Doikuntzak								
3. Gastatutako kredituak, atxiki gabeko diruzaintzako gerakirekin finantzatuak								
4. Ekitaldiko finantzaketa-desbideratze negatiboak								
5. Ekitaldiko finantzaketa-desbideratze positiboak								
II. Doikuntzak, guztira (II=3+4+5)								
Aurrekontu-emaizak doituak (I+II)				4.158				59.805
Foru Ogasunari itzuli beharreko zenbatekoa				4.158				59.805

1.3 DIRUZAINZTA-GERAKINA 2024KO ABENDUAREN 31N

Kontzeptua	2023	2024
1. (+) Funts likidoak	8.946	59.491
2. (+) Kobratzeko dauden eskubideak		2.742
(+) Ekitaldiko aurrekontukoak		2.742
(+) Itxitako aurrekontuetakoak		
(+) Aurrekontukoak ez diren eragiketetoak		
(+) Merkataritza-eragiketetoak		
3. (-) Ordaintzeko dauden betebeharrak	4.788	2.429
(+) Ekitaldiko aurrekontukoak	4.788	2.428
(+) Itxitako aurrekontuetakoak		
(+) Aurrekontukoak ez diren eragiketetoak		1
(+) Merkataritzako eragiketetoak		
4. (+) Aplikatzeko dauden partidak		
(+) Eginiko kobrantzak, behin betikoz aplikatzeko daudenak		
(+) Eginiko ordainketak, behin betikoz aplikatzeko daudenak		
I. Diruzaintzako gerakina, guztira (1+2-3+4)	4.158	59.805
II. Finantzaketa atxikiaren gaindikina	0	0
III. Saldo kobragaitzak	0	0
IV. Atxiki gabeko diruzaintzako gerakina =(I-II-III)	4.158	59.805

1.4 BALANTZEA, 2024KO ABENDUAREN 31KOA

Aktiboa	2023	2024
Ibilgetu garbia	204.416	199.829
I. Ibilgetu ez-materiala	73.953	68.841
Aplikazio informatikoak	73.953	68.841
II. Ibilgetu materiala	130.463	130.988
Lursailak	67.360	67.360
Eraikinak	45.066	45.317
Altzariak eta tresneria	6.172	9.699
Informazioa prozesatzeko ekipamenduak	11.865	8.611
Aktibo zirkulatzailea	8.946	62.234
Diruzaintza	8.946	59.491
Epe laburreko zordunak	-	2.742
Aktiboa, guztira	213.362	262.063
Ondare garbia eta pasiboa	2023	2024
Ondare garbia	240.478	259.852
Jarritako ondarea	113.317	0
Ekitaldiaren emaitza ¹	36.062	60.023
Beste ondare-gehikuntza batzuk, emaitzei egozteko daudenak	91.099	199.829
Epe laburreko hartzekodunak	4.788	2.429
Kudeaketa-eragiketengatiko hartzekodunak	4.788	2.428
Administrazio publikoak	-	-
Ondare garbia eta pasiboa, guztira	245.266	262.281

¹ Emaitza 218 euroan gainbaloratua diru-sarrera arrunten eta kapitalekoen kontabilizazioaren arteko aldeagatik.

1.5 2024KO EKONOMIA- ETA ONDARE-EMAITZAREN KONTUA

Zorra	2023	2024	Hartzekoa	2023	2024
Langileria-gastuak	132.479	162.691	Diru-sarrera finantzarioak		
Kanpoko lan, hornidura eta zerbitzuak	23.107	28.730	Transferentzia arruntak	191.648	251.444
Amortizazioa	10.971	26.806	Ibilgeturako dirulaguntzaren emaitzen egozpena	10.971	26.806
<i>Aurrezkia (emaitza positiboa)</i>	36.062	60.023			
Guztira	202.618	278.251	Guztira	202.618	278.251

1.6 ONDARE GARBIAK IZANDAKO ALDAKETEN EGOERA-ORRIA, 2024

Deskribapena	Ekarritako ondarea	Sortutako ondarea	Beste ondare-gehikuntza batzuk	Guztira
Ondare garbia, 2023ko ekitaldiaren bukaeran		4.158 ²	204.416	208.574
Ondare garbian izandako aldaketak, 2024ko ekitaldikoak		55.865	-4.587	51.278
Ekitaldian aitortutako diru-sarrerak eta gastuak		60.023	-26.806	33.217
Jabea den entitatearekin egindako eragiketak		-4.158		-4.158
Ondare garbian izandako beste aldaketa batzuk			22.219	22.219
Ondare garbia, 2024ko ekitaldiaren bukaeran		60.023	199.829	259.852

1.7 2024KO DIRU-FLUXUEN EGOERA-ORRIA

Kontzeptua	2023	2024
I. Kudeaketa-jardueretako diru-fluxuak		
A) Kobrantzak	80.381	108.013
2. Jasotako transferentziak eta dirulaguntzak	80.381	108.013
5. Kobratutako interesak eta dibidenduak		
6. Beste kobrantza batzuk		
B) Ordainketak	-20.326	-29.122
9. Hornikuntzak	18.574	28.456
10. Beste kudeaketa-gastu batzuk	1.752	667
13. Beste ordainketa batzuk		
<i>Kudeaketa-jarduerengatiko eskudiru-fluxu garbiak (+A-B)</i>	60.055	78.890
II. Inbertsio-jardueretako eskudiru-fluxuak		
C) Kobrantzak		
1. Inbertsio errealak saltzea		
D) Ordainketak	-51.109	-24.187
4. Inbertsio errealen erosketak	-51.109	-24.187
<i>Inbertsio-jarduerengatiko eskudiru-fluxu garbiak (+C-D)</i>	-51.109	-24.187
VI. Eskudiruaren eta haren baliokide diren aktibo likidoen gehitze/gutxitze garbia (I+II+IV)	8.946	50.545
Eskudirua eta haren baliokide diren aktibo likidoak, ekitaldiaren hasieran		8.946
Eskudirua eta haren baliokide diren aktibo likidoak, ekitaldiaren bukaeran	8.946	59.491

² 2023ko emaitza gainbaloratua zegoen diru-sarrera arruntan eta kapitalekoen kontabilizazioaren arteko aldeagatik.

2. GEHIGARRIA. JARDUNBIDE EGOKIEN ALDEKO ETA USTELKERIAREN KONTRAKO BULEGOA

Bulegoa 2018ko abuztuaren 23an eratu zen, berezko nortasun juridikoko zuzenbide publikoko entitate gisa; Nafarroako administrazio publikoekiko (aurrerantzean, APak) autonomia organiko eta funtzional osoz betetzen ditu bere eginkizunak.


Bere funtzioak betetzean, bi helburu nagusi ditu:

- APetan eta haien partaidetzapeko entitateetan eta sozietateetan ustelkeria eta iruzurrezko jarduerak hautematea, prebenitzea, ikertzea eta desagerraraztea.
- Jardunbide egokien, herritar-balioen eta gobernu onaren kultura bultzatu eta faboratzea herritarren artean, eta ustelkeria baztertzea politika publikoak eta jarduketa administratiboak taxutu, bete eta ebaluatzean.

Parlamentuak 2022ko maiatzaren 26an izendatu zuen Bulegoko zuzendaria, sei urteko eperako, zeina 2022ko uztailearen 1ean jabetu baitzen karguaz.

Bulegoaren aurrekontu-araubidea eta araubide ekonomiko-finantzarioa Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Legean ezarritakoa da, eta haren kontabilitatea Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorrari lotuta dago. Bulegoaren aurrekontua eta kontuak Nafarroako aurrekontu eta kontu orokorretan sartzen dira.

Honako hau da organigrama:



3. GEHIGARRIA. ARAU-ESPARRUA

Honako hau da Bulegoari 2024ko ekitaldian aplikatzekoa zaion arau-esparrua:

Estatuko araudia

- EHA/1037/2010 Agindua, apirilaren 13koa, Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra onesten duena.

Foru araudia

- 7/2018 Foru Legea, maiatzaren 17koa, Nafarroako Foru Komunitateko Jardunbide Egokien aldeko eta Ustelkeriaren kontrako Bulegoa sortzekoa.

- 14/2004 Foru Legea, apirilaren 4koa, Nafarroako Ondareari buruzkoa.

- 13/2007 Foru Legea, apirilaren 4koa, Nafarroako Ogasun publikoari buruzkoa.

- 2/2018 Foru Legea, apirilaren 13koa, Kontratu Publikoei buruzkoa.

- 5/2018 Foru Legea, maiatzaren 17koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzkoa.

- 2/2024 Foru Legea, martxoaren 13koa, Nafarroako 2024rako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.

- 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, abuztuaren 30ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileriaren Estatutuaren testu bategina onesten duena, bai eta hura garatzeko xedapenak ere.

- 14/2023 Foru Dekretua, martxoaren 1ekoa, Nafarroako Foru Komunitateko Jardunbide Egokien aldeko eta Ustelkeriaren kontrako Bulegoaren Antolaketa eta Funtzionamendu Erregelamendua onesten duena.

4. GEHIGARRIA. FISKALIZAZIOKO BESTE OHAR ETA AURKIKUNTZA BATZUK

Egindako fiskalizazioaren atal gisa, ondoren ohar eta iruzkin batzuk gehitu ditugu, Ganbera honen ustez fiskalizazio-txosten honen hartzaile eta erabiltzaileentzat interesgarri gertatzen ahal direnak.

Orobat, gehitu ditugu Bulegoaren kudeaketa ekonomiko-administratiboa hobetze aldera Ganbera honen ustez beharrezkoak diren gomendioak.

4.1 EGINDAKO JARDUNA

Zuzendariak emandako jarduera-oroitidazkiaren zirriborroaren arabera, 37 salaketa artatu dira.

- Honako koadro honetan azaltzen da aurkeztutako salaketen izaera:

	Zkia.
Kontratazio publikoa	18
Udal-kudeaketa: antolaketa, emakidak, kontratazioa, tasak eta hirigintza	9
Administrazio publikoan informazio-/salaketa-kanalik ez egotea	4
Langileak	4
Beste batzuk	2
Salaketak, guztira	37

- Honako administrazio hauei buruzko salaketak aurkeztu dira: Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa (aurrerantzean, NFKA) eta foru-sektore publiko instituzionala, toki-entitateak eta beste entitate batzuk –21 salaketa, 15 salaketa eta salaketa bat, hurrenez hurren–.

- Lau salaketa arxibatu egin dira gomendioa emanda, 24 egitateen egiazkotasuna aztertzeko fasean daude, zortzik ikerketa-prozedura hastea eragin zuten eta instrukzio-fasean daude, eta bat ez da onartu eskumen faltagatik. Halaber, 2023an hasitako zehapen-prozedura bat amaitu da.

4.2 AURREKONTU-LIKIDAZIOA

- Bulegoaren 2024rako hasierako aurrekontuan, diru-sarrerei eta gastuei buruzko hasierako aurreikuspenak 875.022 eurokoak ziren, ehuneko 36 handiagoak 2023rako hasierako aurrekontu-koak baino.

- 2024an, gastuek 213.641 euro egin zuten, eta betetze-maila ehuneko 24koa eta ordaintze-maila ehuneko 99koa izan ziren. Gastu horiek % 2 handiagoak izan ziren 2023koak baino.

- Aitortutako diru-sarrerak 273.446 euro egin zuten, eta betetze-maila % 99koa izan zen. Kasu honetan, diru-sarreren igoera ehuneko 28koa izan zen 2023ko ekitaldikoarekin alderatuta. Diru-sarrera guztiek NFKA - Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan dute jatorria.

- Koadro honetan ageri dira Bulegoaren gastuen eta diru-sarreren xedea eta finantzaketa, ehunekotan:

Gastuaren izaera	Ehunekoa	Finantzaketa-iturria	Ehunekoa
Langileak	76	Transferentzien bitartezko diru-sarrerak	100
Ondasun arruntak eta zerbitzuak	13		
Inbertsioak	11		
	100		100

- Bulegoak, indarreko araudiari jarraituz, 59.805 euro itzuliko dizkio Foru Ogasunari. Zenbateko hori, ondoren erakusten den moduan, bat dator aurrekontu-emaizta doituarekin:

Kontzeptua	Zenbatekoa
Diru-sarrerak, guztira	273.446
Gastuak, guztira	213.641
Foru Ogasunari itzuli beharrekoa, guztira	59.805

4.3 LANGILERIA-GASTUAK

2024an, Bulegoaren langile-gastuek 162.691 euro egin zuten, ehuneko 24ko betetze-mailarekin. Ekitaldian aitortutako betebeharrak guztien ehuneko 76 egiten dute.

2023ko ekitaldiarekin alderatuta, langileria-gastuek ehuneko 23 egin zuten gora –bi langile sartu ziren–, jarraian xehakaturik azaltzen denez:

Kontzeptua	ABG, 2023	ABG, 2024
Behin-behineko langileen ordainsariak	76.044	78.346
Langile funtzionarioen ordainsariak	31.619	53.138
Ordezkapenatarako aldi baterako langileen ordainsariak	-	-
Gizarte Segurantzza	24.816	31.207
Guztira	132.479	162.691

Aurreko ekitaldian bezala, gastu horien betetze-maila baxua da, plantillan aurreikusitako lanpostuak ez baitziren hornitu.

Egiaztatu dugu 2024ko ekitaldian jasotako ordainsariak bat datozela arauz ezarritakoarekin. Hala ere, 2025eko apirilean, langile batek erreklamazio bat aurkeztu zuen ordainsaria dela-eta, hasiera batean kontratatua izan zen lanpostuari zegozkionak baino maila eta kategoria goragoko eginkizunak egiten zituelako. Erreklamazio hori ebatzteke dago.

Plantilla organikoa

Bulegoko zuzendariaren maiatzaren 6ko 18/2024 Ebazpenaren bidez onetsi ziren 2024rako plantilla organikoa eta lanpostu-zerrenda. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialeko 2024ko maiatzaren 16ko 101. alean argitaratu zen.

Honako hauek dira lanpostuak, azken plantilla organikoaren arabera:

Lanpostua	Araubide juridikoa	Maila	Kopurua
Zuzendaria	Behin-behinekoa		1
Zerbitzuko zuzendaria	Funtzionarioa	A	3
Atalburua	Funtzionarioa	A	1
Prestatzaile-aholkularia	Funtzionarioa	A	1
Ikuskatzailea (juridikoa)	Funtzionarioa	A	2
Ikuskatzailea (ekonomikoa)	Funtzionarioa	A	1
Komunikazioko goi-tituluduna	Funtzionarioa	A	1
Administraria	Funtzionarioa	C	1
Guztira			11

2024ko abenduaren 31n, plantilla organikoan aurreikusitako 11 lanpostutatik soilik hiru zeuden beteta, zuzendariarenaz gain. Lanpostu horiek fiskalizatutako ekitaldian bete ziren: administrariarena, martxoan; Prebentzio, Ebaluazio eta Prestakuntza Zerbitzuko zuzendariarena, abuztuan; eta prestatzaile-aholkulariarena, urriaren amaieran.

2024ko ekitaldian, ikuskatzaile juridikoaren eta ekonomikoaren lanpostuak behin-behinekoz betetzeko hautapen-prozesuen deialdiak egin dira, baina ez dira bete.

4.4 ADMINISTRAZIO-KONTRATAZIOA

Eginiko gastuen kontzeptu nagusiak aztertu dugu, bai eta, hala izan denean, erabilitako kontratazio-prozedura ere:

	ABG
Informatika eta telekomunikazioen konponketak eta mantentzea	2.467
Telekomunikazio zerbitzua: telefonoa/Internet	3.294
Komunitate eta ur-gastuak eta zabor-tasak	2.138
Informatika-zerbitzua/EAZ/salaketa-kanala/Gestiona	17.541
Lokalak egokitu eta hobetzea: irisgarritasuna	1.400
Bulego ekipoak eta altzariak	4.267
Informazio- eta salaketa-kanalaren bilakaera	16.553

Egindako lanaren konklusioa da gastuak zuzen onetsita, kontabilizatuta eta justifikatuta daudela. Horrez gain, aplikatzekoa den araudiari jarraikiz egin ziren kontratazioak.

4.5 TRANSFERENTZIA ARRUNTENGATIKO ETA KAPITAL-TRANSFERENTZIENGATIKO DIRU-SARRERAK

Transferentzia arruntengatiko eta kapital-transferentziengatiko diru-sarrerak, hurrenez hurren, 251.444 eta 22.001 eurokoak izan ziren, diru-sarrera guztien ehuneko 100, hain zuzen ere. Haien betetze-maila ehuneko 32koa eta 24koa izan zen, hurrenez hurren. Honako koadro honetan jaso da 2023ko ekitaldiko diru-sarrerekiko konparazioa:

	AEG, 2023	AEG, 2024	Aldea (%) 2024/2023
4. Transferentzia arruntak	191.648	251.444	31
7. Kapital-transferentziak	21.212	22.001	4
Diru-sarrerak, guztira	212.860	273.446	28

Transferentzia arrunten betetze-maila baxua izan zen ez zelako finantzaketarik behar izan plantilla organikoan aurreikusitako plazak ez zirelako bete.

Egiaztatu dugu kontabilizatutako transferentziengatiko diru-sarrerak bat datozela Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan jasota dagoen informazioarekin.

